

## 15. FITXA BIODIBERTSITATEA FUNDAZIOA - Hirien birnaturalizazio eta erresilientziara bideratutako jarduerak 2021

**Norentzat:** Toki-erakundeak: **Udalerriak (Udalak), Eskualdeak edo udalerrielkartzeak;** toki-erakundeek gidatutako beste erakunde batzuk, betiere mugakide badira.

**Sarbide-esteka:** [Biodibertsitate Fundazioa](#)

**Erreferentziatzko araudia:** [BOE 304zkia 2021/12/21](#)

**Eremuak:** Hiri-inguruneetako ibai-ekosistemak leheneratzea

**Zenbatekoa:** **75.000.000€**, norgehiagokan

**Aurkezpen-amaiera data:** **2022ko martxoak 16**

### Laburpena

Deialdi honen helburua **ibai-ekosistemak leheneratu** eta Espainiako **hiri-inguruneetan uholde-arriskua murrizteko** jarduketak sustatzeko laguntzak ematea da, horretarako naturan oinarritutako irtenbideak baliatuz. Jarduketa horiek eraginkorren izango diren ibai-tarteetan egin ahal izango dira, eta ibai-sistemaren egoera ekologikoa hobetzen lagundu beharko dute nahitaez.

### Onuradunak

- **Udalak.**
- Probintzia-diputazioak edo Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 40. artikulua arabera, beren eskumen propioak bereganatuta dituzten administrazioak.
- Uharteetako kabildoak eta kontseiluak.
- **Hainbat udalerrri biltzen dituzten eskualdeak edo bestelako erakundeak,** autonomia-erkidegoek legearen eta kasuan kasuko autonomia-estatutuen arabera sortuak.
- **Udalerrri-mankomunitateak.**
- Aurreko erakunderen batek ordezkatutako elkarte hauek:
  - o Irabazi-asmorik gabeko erakundeak.
  - o Estatuko Administrazio Orokorraren eta autonomia-erkidegoen ikerketa-erakunde publikoak.
  - o Unibertsitate publikoak eta haietako Unibertsitate-Institutuak, Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan inskribatuta badaude.
  - o Estatu mailako Teknologia Zentroak eta irabazi asmorik gabeko berrikuntza teknologikoari laguntzeko zentroak, baldin eta Zentroen Erregistroan inskribatuta badaude.
  - o I+G+b arloko irabazi-asmorik gabeko ikastetxe publiko edo pribatuak.
  - o Administrazio onuradunen bat partaide duten administrazio publikoak.

**Elkarteak osatzen dituzten toki-erakundeek mugakideak izan behar dute kasu guztietan eta proiektu komun batean parte hartu.**

## Gastuetarako aldi hautagarria

Proiektua deialdiaren ebazpenetik aurrera hasi beharko da eta ezingo da 2025eko abenduaren 31 baino geroago amaitu, luzapenak barne.

## Jarduera-lerroak

**A mota:** ibaiak birnaturalizatzeko planak eta estrategiak egitea/eguneratzea, uholde-arriskua murriztea (arintzea, babestea eta/edo egokitzea), edo espazioak berrantolatzea ibaiak ingurunean integratzea ahalbidetzeko, bertako biodibertsitatea handitzen eta ibaia bera kontserbatzen lagunduz. *Tresna horiek, ahal den neurrian, modu parte-hartzailean eraiki behar dira, interesa duten eragile guztiekin batera.*

**B mota:** honako ekintza hauetako bat edo batzuk burutzen dituzten esku-hartze espezifikoak, NATURAN OINARRITUTAKO IRTENBIDEAK barne hartzen dituztenak: proiektu guztiek **B.1** edo **B.2** motako lurraldean zuzenean inplementatzeko jarduerak garatu beharko dituzte, eta, **B.3.** ekintzak ere barne har ditzakete, modu osagarrian.

**C mota:** Zeharkako jarduerak (NAHITAEZKOA):

- ✓ Gobernantza eta partaidetza plana.
- ✓ Komunikazio eta sentsibilizazio plana.
- ✓ Adierazleak neurtzeko eta jarraipena egiteko plana.

Lurraldean zuzenean inplementatzeko garatuko diren jarduera guztiak (B mota) plan edo estrategia baten barruan (A mota) kokatu beharko dira; besteak beste, arroko plan hidrológicoetako neurri-programak, uholde-arriskua kudeatzeko planak, hirigintza-plangintzako tresnak edo babes zibileko plan espezifikoak.

1. Udalak AURRETIKO ESTRATEGIA badu, zuzenean planteatu ditzake inplementazio-jarduerak (B mota).
2. Udalak AURRETIKO ESTRATEGIARIK ez badu, plana (A mota) inplementazio-jarduerekin batera garatu behar du (B mota).
3. Udalak proiektuko jarduerak sartzeko AURRETIKO ESTRATEGIA eguneratu behar badu, plana (A mota) paraleloan garatu behar du inplementazio-jarduerekin batera (B mota).
4. Ezin da AURRETIKO ESTRATEGIA bakarrik garatu (A mota).

## Ekintzen tipologia

- **B.1. Hiri-tarteetan eragina duten ibilguen ingurumena berreskuratzeko jarduketak, bai zuzenean (ahal dela), bai zeharka (hiri-bideetatik kanpo jardunez, jardueraren logikak hala eskatzen duenean), irizpide hidrológico/hidrauliko eta ekologikoak behar bezala aplikatuta.**
  - o Ibai-eremuaren jarraitutasuna eta/edo handitzea hobetzea,
  - o Habitata, ibaiertzeko basoak eta ibai-morfologiako beste elementu batzuk berreskuratzea, bai ibai iraunkorretan, bai aldi baterako ibaietan, iragankorretan, ibai-adarretan eta aldizkako gainerako ibilguetan ere.
- **Uholde-arriskua (arintzea, babestea edota egokitzea) eraginkortasunez murrizteko azpiegitura berdea sortzeko jarduketak, ibai-ekosistemak kontserbatu eta babestearekin bateragarriak badira.** B1 eta B2 jarduketak horiek honako hauekin osatu ahal izango dira:
- **B.3. Uholdeak izan ditzaketen eremuetan dauden eraikin edo ondasunetan jarduketak garatzea, uholde-arriskura hobeto egokitu ahal izateko.**

## Laguntzen zenbatekoa eta mota

Laguntzaren zenbatekoa 500.000 €-tik 4.000.000,00 €-ra bitartekoa izango da.

Emandako laguntzaren gehieneko zenbatekoak ezin izango du aurkeztutako proiektuaren aurrekontu osoaren % 95 gainditu.

## Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira, laguntzaren xede den jarduerarekin zalantzarik gabeko zerikusia dutenak, hura gauzatzeko beharrezkoak direnak, proiektu onuradun bakoitzarentzat onartutako egikaritze-aldian hartuak izan direnak eta justifikazio-aldia amaitu aurretik ordainduta daudenak.

- ✓ Langileen gastuak:
  - Proiekturako berariaz kontratatutako langileen lan-kostuaren % 100.
  - Erakundeko gainerako langileen kostua, proiektuarekiko dedikazioaren ehunekoaren arabera, ez da inoiz lan-kostuaren % 80 baino handiagoa izango.
  - Ekonomikoki mendekoak diren langile autonomoak (TRADE).
- ✓ Bidaiak eta mantenua.
- ✓ Kanpoko laguntzak.
- ✓ Material inbentagarria: instalazio eta material inbentariagarriaren amortizazioa, errentamendua, softwarea.
- ✓ Material suntsikorra.
- ✓ Zeharkako kostuak (zuzeneko kostuen % 4).
- ✓ Auditore batek justifikazio-kontua berrikustea (laguntzaren % 5 gehienez).

## Intereseko beste alderdi batzuk

Deialdiaren informazio gehiago [hemen](#).

Erakunde eskatzaileak modu telematikoan aurkeztuko ditu eskabideak BFren web-orrian ([www.fundacion-biodiversidad.es](http://www.fundacion-biodiversidad.es)), horretarako prestatutako tresnaren bidez.